ura
ur agentzia
agencia vasca del agua

VILLABONAKO UDALA

ZIZURKILGO UDALA

**LANKIDETZA HITZARMENA, URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ETA VILLABONAKO ETA ZIZURKILGO UDALEN ARTEKOA, "VILLABONA-ZIZURKILEN ORIA ETA ASTEASU IBAIAK UBIDERATZEKO ETA HAIEN UHOLDEETATIK BABESTEKO PROIEKTU ALDATUA. BIGARREN FASEA. LEHEN SEPARATA"KO OBRAK EGITEKO**

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 8a.

**HONAKO HAUEK BILDU DIRA**

Alde batetik, Iñigo Ansola Kareaga jauna, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari den aldetik eta Agentziaren Estatutuen 7.2.g) artikuluak ematen dizkion eskumenak betez.

Bestetik, Galder Azkue Eizmendi jauna, Villabonako alkate-udalburua den aldetik eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluak udala ordezkatzeko ematen dion lege-ahalmena betez.

Eta azkenik, Jose Maria Luengo Zapirain jauna, Zizurkilgo alkate-udalburua den aldetik eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluak udala ordezkatzeko ematen dion lege-ahalmena betez.

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA Y LOS AYUNTAMIENTOS DE VILLABONA Y ZIZURKIL PARA LA EJECUCIÓN DE LAS OBRAS DEL "MODIFICADO DEL PROYECTO DE DEFENSA CONTRA INUNDACIONES Y ENCAUZAMIENTO DE LOS RÍOS ORIA Y ASTEASU EN VILLABONA-ZIZURKIL. 2ª FASE. SEPARATA 1ª".**

Vitoria-Gasteiz, a 8 de enero de 2015.

**REUNIDOS**

D. Iñigo Ansola Kareaga, en calidad de Director General de la Agencia Vasca del Agua (URA), y, en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2.g de los Estatutos de dicha Entidad.

D. Galder Azkue Eizmendi, en calidad de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Villabona, y en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

D. Jose María Luengo Zapirain, en calidad de Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zizurkil, y en ejercicio de la capacidad legal de representación del Ayuntamiento que le confiere el artículo 21 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local.

[redacted]

VILLABONAKO UDALA

ZIZURKILGO UDALA

Esku-hartzaileek **LANKIDETZA HITZARMEN** hau sinatzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta asmo horrekin honako hau

**ADIERAZI DUTE**

**Lehenengoa**.- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluaren 11. eta 33. paragrafoekin bat, Autonomia Erkidegoari dagokio, haren lurralde eremuaren barruan, aprobetxamendu hidraulikoen gaineko eskumen osoa, urak Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen badira osoki, bai eta obra publikoen gaineko eskumena ere, horiek ez badira Estatuarentzat interes orokorrekotzat jotzen legez, edo beste autonomia-erkidego batzuetan eragiten ez badute.

**Bigarrena**.- Ekainaren 23ko 1/2006 Legeak Uraren Euskal Agentzia sortu zuen, ingurumenaren alorrean eskumena duen sailari atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa; horren xedea da uraren politika gauzatzea EAEn.

**Hirugarrena**.- Uraren Euskal Agentziak, Villabonako eta Zizurkilgo Udalekin elkarlanean, Oria ibaiak bi udalerriotan sortzen dituen uholde arazoei aurre egiten urteak daramatza.

2005eko uztailean "*Villabona-Zizurkile*

[redacted]

Todas las partes, reconociéndose plena capacidad legal y de obrar acuerdan formalizar el presente **CONVENIO DE COLABORACIÓN**, a cuyos efectos

**EXPONEN:**

**Primero**.- Que, conforme al artículo 10, párrafos 11 y 33, del Estatuto de Autonomía del País Vasco, corresponde a la Comunidad Autónoma, dentro de su territorio, la competencia exclusiva en aprovechamientos hidráulicos, cuando las aguas discurren íntegramente dentro del País Vasco, así como en obras públicas que no tengan la calificación legal de interés general del Estado o cuya realización no afecte a otras Comunidades Autónomas.

**Segundo**.- Que, por Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, se creó la Agencia Vasca del Agua (URA), ente público de derecho privado adscrito al Departamento competente en materia de medio ambiente, cuyo objeto es llevar a cabo la política de agua en Euskadi.

**Tercero**.- Que la Agencia Vasca del Agua, en colaboración con los Ayuntamientos de Villabona y de Zizurkil, lleva años trabajando para evitar los problemas de inundaciones provocados por el río Oria a su paso por el municipio.

En julio de 2005 se redactó el proyecto de

[redacted]

*(Gipuzkoa) Oria eta Asteasu Ibaiak ubideratzeko eta haien uholdeetatik babesteko proiektua"* idatzi zen. Proiektuak egin beharreko lanak bi fasetan banatu zituen. Lehen faseak Zubimusu zubitik ibaian gorako jarduketak jaso zituen. Bigarren faseak, berriz, Zubimusu zubia ordezkatu eta bertatik hasita, ibaian beherako jarduketak jaso zituen, "La Salvadora" presa txikiraino, presa horren eraisketa barne. Horrez gain, Asteasu ibaian egin beharreko jarduketak ere jasoak izan ziren.

*"Defensa contra inundaciones y encauzamiento de los ríos Oria y Asteasu en Villabona-Zizurkil (Gipuzkoa)".* El proyecto dividía las actuaciones a ejecutar en dos fases. La primera fase recogía las actuaciones aguas arriba del puente de Zubimusu. La segunda fase, incluía la sustitución del puente de Zubimusu y las actuaciones aguas abajo de éste hasta el azud de la Salvadora, que se demolía. Además, incluía las actuaciones precisas en el Asteasu.

Lehen fasea dagoeneko egina dago. Bigarren faseari dagokionez, aldiz, 2012ko otsailean idatzi zen *"Villabona-Zizurkilen Oria eta Asteasu ibaiak ubideratzeko eta haien uholdeetatik babesteko proiektu aldatua. Bigarren fasea".* Villabonako Udalerriak duen saneamendu arazoari konponbidea emateko eta eremu horren uholde-arriskugarritasunaren aferari erantzun egokia ematen jarraitzeko asmoarekin, Uraren Euskal Agentziaren aurrekontu ahalmenaren baitan, 2014ko azaroaren 17an behin betiko onarpena eman zitzaion *"Villabona-Zizurkilen Oria eta Asteasu ibaiak ubideratzeko eta haien uholdeetatik babesteko proiektu aldatua. Bigarren fasea. Lehen separata"ri.* Bertan, Zubimusu zubiaren aldaketa eta Oria ibaiaren eskuin ertzeko "2" hormaren eraiketa jaso dira.

La primera fase ya ha sido ejecutada. En relación con la segunda fase, en febrero de 2012 se redactó el *"Modificado del proyecto de defensa contra inundaciones y encauzamiento de los ríos Oria y Asteasu en Villabona-Zizurkil. 2ª fase".* Con objeto de resolver el problema de saneamiento que tiene Villabona y continuar avanzando en la resolución de los de inundabilidad del ámbito, dentro de la disponibilidad presupuestaria de la Agencia Vasca del Agua, el 17 de noviembre de 2014 aprobó definitivamente el *"Modificado del proyecto de defensa contra inundaciones y encauzamiento de los ríos Oria y Asteasu en Villabona-Zizurkil. 2ª fase. Separata 1ª"*, que incluye la modificación del puente de Zubimusu y la ejecución del muro 2 situado en la margen derecha del Oria.

**Laugarrena.-** Aipatutako jarduerak egiteko,

**Cuarto.-** Que para la realización de dichas

[redacted]

Villabonako eta Zizurkilgo Udalek laguntza eskatu diote Uraren Euskal Agentziari.

**Bosgarrena.-** Uraren Euskal Agentziak eta Villabonako eta Zizurkilgo udalek beharrezkotzat jotzen dute instituzioen arteko elkarlana aipatutako proiektuan jasotako lanak egiteko.

**Seigarrena.-** Horrenbestez, Uraren Euskal Agentziak eta Villabonako eta Zizurkilgo udalek LANKIDETZA HITZARMEN hau sinatzea erabaki dute, jarraian adierazitako jarduerak egite aldera. Hona hemen hitzarmenaren

**KLAUSULAK:**

**Lehenengoa.- Hitzarmenaren helburua**

Hitzarmen honen helburua da "*Villabona-Zizurkilen Oria eta Asteasu ibaiak ubideratzeko eta haien uholdeetatik babesteko proiektu aldatua. Bigarren fasea. Lehen separata*"ko obrak egiteko Uraren Euskal Agentziak eta Villabonako eta Zizurkilgo udalek lankidetzan aritzeko hartutako konpromisoaren baldintzak arautzea.

**Bigarrena.- Gauzatu beharreko obrak.**

Gauzatu beharreko obrak, ondorengo klausuletan ezarritako baldintzetan, "*Villabona-Zizurkilen Oria eta Asteasu ibaiak ubideratzeko eta haien uholdeetatik babesteko proiektu*

actuaciones, los Ayuntamientos de Villabona y de Zizurkil han solicitado el auxilio de la Agencia Vasca del Agua.

**Quinto.-** Que la Agencia Vasca del Agua y los Ayuntamientos de Villabona y de Zizurkil consideran necesaria la colaboración entre las instituciones para la ejecución de las obras contempladas en el proyecto.

**Sexto**.- Que, por todo lo expuesto, la Agencia Vasca del Agua y los Ayuntamiento de Villabona y de Zizurkil proceden a la formalización del presente CONVENIO DE COLABORACIÓN para las actuaciones que se indican, con arreglo a las siguientes:

**CLAÚSULAS:**

**Primera.- Objeto del Convenio.**

Es objeto del presente Convenio regular las condiciones en las que la Agencia Vasca del Agua y los Ayuntamientos de Villabona y de Zizurkil se comprometen a colaborar en la ejecución de las obras del *"Modificado del proyecto de defensa contra inundaciones y encauzamiento de los ríos Oria y Asteasu en Villabona-Zizurkil. 2ª fase. Separata 1ª"*.

**Segunda.- Obras a ejecutar.**

Las obras a ejecutar, en los términos establecidos en las cláusulas siguientes, son las definidas en el *"Modificado del proyecto de defensa contra inundaciones y encauzamiento*

[redacted]

*aldatua. Bigarren fasea. Lehen separata"* izeneko agirian jasotakoak dira. Funtsean, honakoak dira eginbeharrekoak: Zubimusu zubiaren ezker baoa zabaldu eta Oria ibaiaren eskuin ertzean 157m luze duen horma altxatu, Zubimusu zubitik 30m-tara ibaian gora hasita. Hormaren azken 84m-etako atzealdean hodi biltzaile bat egingo da, Villabonako hondakin-urak Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren hodi biltzailera eramango dituena.

*de los ríos Oria y Asteasu en Villabona-Zizurkil. 2ª fase. Separata 1ª"*, y consisten fundamentalmente en ampliar el vano izquierdo del puente de Zubimusu y la ejecución de un muro de 157m . de longitud situado en la margen derecha del río Oria que comenzará 30m. aguas arriba del puente de Zubimusu. En los 84m. finales el trasdós de este murro llevará alojado un tramo de colector que conectará el vertido al colector existente del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

**Hirugarrena.- Uraren Euskal Agentziaren konpromisoak.**

**Tercera.- Compromisos de la Agencia Vasca del Agua.**

Honako hauek gauzatzeko konpromisoa hartzen du Uraren Euskal Agentziak:

La Agencia Vasca del Agua, se compromete a:

a) "*Villabona-Zizurkilen Oria eta Asteasu ibaiak ubideratzeko eta haien uholdeetatik babesteko proiektu aldatua. Bigarren fasea. Lehen separata*"ren proiektua egitea.

a) Aportar el proyecto *"Modificado del proyecto de defensa contra inundaciones y encauzamiento de los ríos Oria y Asteasu en Villabona-Zizurkil. 2ª fase. Separata 1ª"*.

b) Aipaturiko proiektuan jasotako lanak kontratatzea.

b) Contratar las obras incluidas en el citado proyecto.

c) Obra horiek zuzentzea eta ikuskaritza teknikoaz arduratzea.

c) Dirigir e inspeccionar técnicamente las mencionadas obras.

d) Lanak kontratatzeko egiazko kostua finantzatzea eta ordaintzea, hitzarmen honetan aurreikusitakoari jarraiki.

d) Financiar y abonar el coste efectivo de la contratación de las obras en los términos previstos en el presente convenio.

Uraren Euskal Agentziaren ekarpenaren [redacted]

El importe previsto como aportación máxima [redacted]

gehieneko zenbatekoa BI MILIOI, BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HAMALAU MILA, ZAZPIEHUN ETA HOGEITA SEI EURO, HEMEZORTZI ZENTIMOkoa (2.934.726,18€) izatea aurreikusten da, BEZ barne. Zenbateko hori 2015. urterako ZORTZIEHUN MILA EUROKO (800.000,00 €) ordainketa kreditu bati dagokio eta 2016. urterako BI MILIOI, EHUN ETA HOGEITA HAMALAU MILA, ZAZPIEHUN ETA HOGEITA SEI EURO, HEMEZORTZI ZENTIMOKO (2.134.726,18 €) konpromiso kreditu bati. 23150070 kontutik finantzatuko dira.

**Laugarrena.- Villabona eta Zizurkilgo udalen konpromisoak.**

Honako hauek gauzatzeko konpromisoa hartzen dute Villabonako eta Zizurkilgo udalek:

a) Obrak egin ahal izateko beharrezko lursailak Agentziaren esku jartzea, izan aldi baterako edo behin betiko.

b) Proiektuaren barne hartu ez diren zerbitzuak berriz jartzea eta hitzarmen honetako obrak kontratatu eta egin ahal izateko behar diren lizentziak eta baimenak – beharrezko izanez gero hidraulikoak barne- eskuratzea eta aldez aurreko gainerako izapide guztiak egitea.

Villabonakao Udalak, horrez gain, saneamendu

que compromete la Agencia Vasca del Agua es de DOS MILLONES NOVECIENTOS TREINTA Y CUATRO MIL SETECIENTOS VEINTISEIS EUROS Y DIECIOCHO CÉNTIMOS (2.934.726,18 €), IVA incluido, consistentes en un crédito de pago para el año 2015 de OCHOCIENTOS MIL EUROS (800.000,00 €) y un crédito de compromiso para el año 2016 de DOS MILLONES CIENTO TREINTA Y CUATRO MIL SETECIENTOS VEINTISEIS EUROS Y DIECIOCHO CÉNTIMOS (2.134.726,18 €), imputable a la cuenta 23150070.

**Cuarta.- Compromisos de los Ayuntamientos de Villabona y de Zizurkil**

Los Ayuntamientos de Villabona y de Zizurkil, se comprometen a:

a) Poner a disposición de la Agencia, los terrenos precisos, de modo temporal o definitivo, según el caso, para la ejecución de las obras.

b) Reponer los servicios afectados no contemplados en el proyecto, así como obtener las licencias, autorizaciones -incluidas de ser necesario las hidráulicas- y los demás trámites administrativos no contractuales previos y necesarios para la contratación y ejecución de las actuaciones objeto del convenio.

El Ayuntamiento de Villabona, además, se

[redacted]

sareko lanak behin amaitutakoan Uraren Euskal Agentziaren aldetik jasotzeko konpromezua hartzen du, udalaren jabetzako eginez eta Villabonako Udalak edo eskumena izango duen toki erakundeak derrigortuta izanik kudeaketa eta ustiaketa egokia egiteko.

**Bosgarrena.- Obrak kontratatu, zuzendu eta ikuskatzea.**

1.- Hitzarmen honen 3.b klausularen arabera Uraren Euskal Agentziak bere gain hartuko du "*Villabona-Zizurkilen Oria eta Asteasu ibaiak ubideratzeko eta haien uholdeetatik babesteko proiektu aldatua. Bigarren fasea. Lehen separata*"ko obren proiektuaren kontratazioa. Hori Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari aplikagarria zaion kontratazio araubidearen arabera egingo da.

2.- Egin beharreko obren zuzendaritza eta ikuskaritza teknikoa Uraren Euskal Agentziak egingo du. Orobat, ziurtapenen onarpena ere Agentziak egingo du.

**Seigarrena. – Obren eta egin asmo diren jarduketen jarraipenerako batzordea.**

1.- Jarraipenerako batzorde bat osatuko da, hitzarmen honetako obra hidraulikoen garapen prozesuari eta egikaritzari jarraipena egiteko. Batzorde hori lau ordezkarik osatuko dute. Bi Uraren Euskal Agentziakoak izango dira, bat Villabonako Udalekoa eta beste bat Zizurkilgo

compromete a recibir de la Agencia Vasca del Agua las obras de la red de saneamiento una vez terminadas y recibidas por éste, obras que quedarán en propiedad local, obligándose el Ayuntamiento de Villabona o la entidad local competente a su gestión y explotación adecuadas.

**Quinta.- Contratación, dirección e inspección de las obras.**

1.- La Agencia Vasca del Agua, conforme a la cláusula 3.b del presente convenio, se hace cargo de la contratación de las obras del proyecto "*Modificado del proyecto de defensa contra inundaciones y encauzamiento de los ríos Oria y Asteasu en Villabona-Zizurkil. 2ª fase. Separata 1ª*", según el régimen de contratación aplicable a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.- Corresponderá a la Agencia Vasca del Agua la dirección e inspección técnica de las obras a ejecutar. Además corresponderá a la citada Agencia la aprobación de las certificaciones.

**Sexta.- Comisión de Seguimiento de las obras y actuaciones proyectadas.**

1.- Se constituirá una Comisión de Seguimiento del proceso de desarrollo y ejecución tanto de las previsiones de este Convenio, como de las obras hidráulicas objeto del mismo. Estará conformada por dos representantes de la Agencia Vasca del Agua (URA), uno del

[redacted]

Udalekoa. Honako eginkizunak izango ditu:

a) Lan bakoitzerako behar diren izapideak erraztea eta arintzea.

b) Hitzarmen honen xede diren jardunak beteko direla bermatzeko behar diren neurriak proposatzea eta informatzea, batez ere urterokoak birmoldatzeko kasuetan eta hirugarren eta laugarren klausuletan jasotakoetan.

c) Hitzarmenak interpretatzeko eta gauzatzeko arazoei irtenbideak ematen saiatzea.

2.- Hitzarmena indarrean dagoen bitartean eta aldeetariko edozein ordezkarik hala proposatuz gero, jardunak ondo joan daitezen behar den guztietan bilduko da batzordea, presidentzia eta idazkaritza txandakakoa izanik, batzordeak berak berariaz bestelakorik erabakitzen ez duen bitartean. Bilkura egiteko kide guztiek bertan egon beharko dute eta erabakiak ere aho batez hartu beharko dira.

3.- Hitzarmenaren jarraipen-batzordeari buruz hitzarmenak berak berariaz jasotzen ez dituen gaietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkide[redacted] 26ko 30/1992 Legearen

Ayuntamiento de Villabona y otro del Ayuntamiento de Zizurkil. Tendrá, entre otros, los siguientes fines:

a) Facilitar la remoción de los obstáculos que entorpezcan la celeridad de los trámites requeridos en cada caso.

b) Informar y proponer las medidas precisas para garantizar el cumplimiento de las actuaciones objeto del presente convenio, especialmente en los supuestos de reajuste de anualidades y en los recogidos en las cláusulas tercera y cuarta.

c) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear el convenio.

2.- Durante la vigencia del convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones, siendo rotatorias la presidencia y la secretaría de la misma, salvo acuerdo expreso de la propia Comisión en otros términos. Los quórum de reunión y de adopción de acuerdos serán los de unanimidad de sus miembros.

3.- En lo no previsto expresamente en el convenio para la comisión de seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en el capítulo II del título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de

[redacted]

II. Tituluko II. Kapituluan kide anitzeko organoei buruz ezarritako araubidea aplikatuko da.

**Zazpigarrena.- Hitzarmenaren araubidea eta interpretazioa.**

1.- Hitzarmen hau administrazio arlokoa da eta, beraz, herri administrazioen arteko lankidetza hitzarmenetan aplikatzekoa den antolamendu juridiko-administratiboan ezarritako irizpideei egokituta interpretatu eta garatuko da.

2.- Hitzarmenak edo hitzarmenaren betearazpenak sorraraz ditzakeen interpretazio-arazoak hitzarmenaren jarraipen-batzordeak ebatziko ditu, aurreko klausulan esandakoari jarraituz; eta, horrela ezin badira ebatzi, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 8.3. artikuluak xedatutakoari jarraituko zaio.

**Zortzigarrena.- Hitzarmenaren eraginak eta iraupena.**

1.- Hitzarmenak ez ditu parte-hartzaileak behartuko nork bere aginpideei uko egitera edo horiek aldatzera; hitzarmenaren ondorio diren konpromisoek dakartzaten erantzukizunak hartuko dituzte beren gain, ez besterik.

2.- Hitzarmen honek izenpetzen denetik izango

Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Séptima.- Régimen del Convenio e interpretación del mismo.**

1.- El presente Convenio es de naturaleza administrativa, y su interpretación y desarrollo se adecuarán a los criterios establecidos en el ordenamiento jurídico-administrativo de aplicación a los convenios de colaboración entre administraciones públicas.

2.- Los problemas de interpretación que pudiera plantear el Convenio o su ejecución serán resueltos por la Comisión de Seguimiento a la que se hace referencia en la anterior Cláusula, de conformidad con los criterios establecidos en la misma. Si no fuese posible su resolución de esa manera, se estará a lo dispuesto en el artículo 8.3 de la *Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.*

**Octava.- Efectos y vigencia del Convenio.**

1.- El Convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes que intervienen, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

2.- El Convenio surtirá efecto y obligará a las

[redacted]

ditu ondorioak eta ordutik behartuko ditu aldeak; eta kontratatutako obrak behin betiko kitatu eta ordaindu arte iraungo du.

**Bederatzigarrena.- Hitzarmenaren amaiera.**

1.- Hitzarmena iraungi egingo da aurreko klausulan ezarritako indarraldia igaro delako edo hitzarmena hautsi egin delako.

2.- Aldeetakoren batek onartutako konpromisoak betetzen ez baditu, besteak eskubidea izango du hitzarmena hauts dadin eskatzeko. Hitzarmena bertan behera geratuz gero, aldeek erabakiko dituzte gauzatzen ari diren lanak amaitzeko eta ordaintzeko baldintzak.

Eta horren guztiaren ondorioz eta horrekin bat, aldeek idazpuruan adierazitako leku eta egunean sinatu dute hitzarmena hiruna aletan.

partes intervinientes desde su firma y, durará hasta el pago de la liquidación de la contratación de las obras para su ejecución.

**Novena.- Extinción del Convenio.**

1.- El Convenio se extinguirá por el transcurso del plazo de vigencia, referido en la cláusula anterior o por resolución.

2.- El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a la otra para solicitar la resolución del Convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las obras que se hallen en ejecución.

Y en virtud y de conformidad con lo establecido, firman los comparecientes, por triplicado, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

[redacted]

Iñigo Ansola Kareaga
URAREN EUSKAL AGENTZIAREN ZUZENDARI NAGUSIA
EL DIRECTOR GENERAL DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA

[redacted]

Gald[redacted]izmendi
VILLABONAKO ALKATE-UDALBURUA
ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE VILLABONA

[redacted]

Jose María Luengo Zapiarain
ZIZURKILGO ALKATE-UDALBURUA
ALCALDE-PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL